# H LETRA

Ondo irakurri hemen duzun informazioa eta gero hasi ariketak egiten.

- Erakusleak (**hau, hori, hura**) **h** letraz idazten dira, bai eta erakusleetatik sortzen diren hitzak ere (honetan, horretatik…).
- Zenbakietan, aldiz, kontsonantez hasten ez diren guztiak **h**z idazten dira (**hiru, hamar, hogei…**), eta salbuespen bakarra ehun da, **h**a bi bokalen artean darama eta.
- Bi bokal berdinen artean, kasu gehienetan, **h** letra erabiltzen da.

**1.- Irakurri eta koadroa bete.**

Hartza eta azeria

Hartza eta azeria, txori hau dela edo ardi hori dela, beti borrokan zeuden. Baina orain dela hogei egun dena aldatu zen.

- Amaitu dira borrokoak - esan zuen azeriak-. Nik hango eta hemengo txoriak harrapatuko ditut, eta lautik hiru zuretzat izango dira.
- Eta zer egingo dut nik? - erantzun zion hartzak.
- Zuk animalia handiak harrapatuko dituzu, eta nik horietatik ere jango dut - bota zuen azeriak.

Eta horrela bakean bizi izan ziren hartza eta azeria.

**Aukeratun ondo kokatuta dauden ipuineko hdun hitzak:**

| ERAKUSLEAK | ZENBAKIAK | BESTE BATZUK |
|---|---|---|
| hiru hau<br>hori<br>handiak hartza | hiru hori<br>harrapatuko<br>hogei horrela | hartza hogei<br>handiak<br>hiru horrela |

## 2.- Osatu esaldiak HAU , HORI , HORIEK edo HAIEK sartuz.

- Horko eltxo ……………. gau osoan gure gelan ibili dira hegan.
- Hemengo suge ………………… Afrikan harrapatu zuten.
- Hortxe ikusten duzun marmoka ……………….. itsasotik atera dute oraintxe bertan.
- Gogoan dauzkat udan Getarian igaro genituen egun zoragarri ………………..

## 3.- Idatzi irudian azaltzen dena.

| | | | |
|---|---|---|---|
|  |  |  |  |
| ……………………... | ……………………... | ……………………... | ……………………... |
|  |  |  |  |
| ……………………... | ……………………... | ……………………... | ……………………... |

## 4.- Ondo dauden hitzak kopiatu eta zuzendu gaizki daudenak.

- maaia …………..
- ogei …………..
- ibaia …………..
- irurogei …………..
- ori …………..
- itsasoa …………..
- amar …………..
- eulia …………..
- animalia …………
- arrapatu …………
- leioa …………
- aiek …………

## 5.- Ondo begiratu eta bilatu h letra behar duten hitzak eta idatzi era zuzenean.

- Aitona pertsona zaarra eta zuurra da. …………… ……………
- Neska ori miia aterata ibiltzen da beti. …………… ……………
- Ez dakit zure etxera joan aal izango naizen. ……………
- Amar lagun gonbidatu ditut nire mozorro-festara. ……………